Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Matilde Isasi-Isasmendi Gallastegi Ezkerranekua

Iurreta, Bizkaia (1933)



Aurkibidea

Biografia



Ermuko "Ezkerraneko" tabernako alaba, baina Iurretan jaiotakoa 1933an. Gasteizen irakasle izateko ikasketak amaitu ostean, lan modura lar gustatu ez, eta aita Manuelen oniritziarekin emagin lanbidea ikasi zuen Basurton. Ermua, Mallabia, Zaldibar zein Berrizko ume askori mundura etortzen lagundutakoa da. 1978an Eibarko anbulatorioan jarri zen lanean, 19 urtez, Ermukoan jardun ostean 1952tik ordura arte. Erditzearen gaineko sasoi bateko sineskerak, tresneria ezak, gogoz kontrako haurdunaldiak, erditze ondorenak... ditu hizpide.

2005eko abenduko "Drogetenitturrin", Ermua eta Mallabiko herri aldizkariaren 130. zenbakian, bere esanak eta gogorapenak argitaratu zituzten iritzi-artikulu batean.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) “60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980” proiektuan ere parte hartu du, batez ere garaiko emakumeen osasun beharrei buruz hitz egiten.

Zintak

IUR-003

- **Proiektua**: Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Data**: 2005-12-15
- **Iraupena**: 43 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Gonzalez, Esti

IUR-066

- **Proiektua**: 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Data**: 2022-04-08
- **Iraupena**: 78 min

- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. 1968an erizain plaza lortu zuen

- **Erref**: IUR-066/002
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:02:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
1968an, Eibarko erizain ("praktikante") plaza lortu zuen. Anbulatorioko funtzioak. Goizero etxeetara joaten zen odola ateratzera pazienteei.

2. Baserritarrek lan gutxi ematen zuten

- **Erref**: IUR-066/003
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Erizain bezala, baserri batzuetara joan izan da injekzioak jartzera, baina ez zen ohikoena. Baserritarrek oso lan gutxi ematen zuten eta anbulatoriora joaten ziren zuzenean.

3. Penizilinaren erabileraren hasiera

- **Erref**: IUR-066/004
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:07:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Injekzioak jartzen hasi zenean, penizilina erabiltzen hasi zen. Gaur egun antobiotikoak ahoz ematen dira eta erosoagoak dira, nahiz eta odolera beranduago iristen diren.

4. Tresneriaren esterilizazioa irakite bitartez

- **Erref**: IUR-066/005
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:07:17. **Bukatu**: 00:10:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Erabiltzen zuen tresneriaren esterilizazioa irakite bitartez egiten zuen. Tratamendu luzeko pazienteetan, lapiko txiki bat etxean bertan uzten zuten xiringarekin. Kristalezkoak ziren xiringak. Anbulatorioan, tresneria irakiten egun osoz izaten zuten.

5. Garai bateko erizaintzako tresneria eta haien erabilera

- **Erref**: IUR-066/006
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:10:23. **Bukatu**: 00:14:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Erizain bezala erabiltzen zituen tresnak. Igeltsua kentzeko tresna. Gasa motak eta erabilerak. Pintzak.

6. Erizain eta praktikante lanak

- **Erref**: IUR-066/008
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:15:41. **Bukatu**: 00:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:
Batzuetan, norbait operatu ondoren, etxean injekzioak beraiek jartzeko esaten zien medikuak eta erizainek erakutsi egiten zieten. Eibarko anbulatorioan garai batean zazpi erizain zeuden etxez-etxe pazienteak ikusten. Populazio handia zuen Eibarrek.

7. Eibarko anbulatorioan espezialitate guztiak zeuden

- **Erref**: IUR-066/009
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:17:13. **Bukatu**: 00:18:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:
Eibarko anbulatorioan, medikuntzako espezialitate guztiak zeuden. Eskualdetik ere pazienteak hartze zituzten otorrinoek, okulistek, zirujauek... Matilde praktikantea zen eta etxez-etxe eta anbulatorioko botikinean lan egiten zuen zauriak sendatzen, injekzioak jartzen, igeltsuak kentzen...

8. Udaletxe azpian "Cuarto de Socorro"

- **Erref**: IUR-066/010
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:18:52. **Bukatu**: 00:20:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:
Anbulatorioaz gain, 1970ean, udaletxe azpian "Cuarto de Socorro" delakoa zegoen. Larrialdien antzeko zentro bat zen.

9. Lantegi handiek medikuak, erizainak edo praktikante propioak zituzten

- **Erref**: IUR-066/011
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:20:01. **Bukatu**: 00:21:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Lantegi handiek, praktikanteak eta erizainak ere zituzten. ALFA.

10. Udal-praktikante plaza nola lortu zuen

- **Erref**: IUR-066/012
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:24:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Eibarko anbulatoriora lanera joan zenean, Osakidetza sortuta zegoen. Matildek Ermuko praktikante plaza ateratzeko azterketa Madrilen egin zuen. Ermuan emagin bezala lanean hasi zenean, gizarte segurantzarik ez zuen jendea zegoen.

11. Premiadun pretsonei laguntzen

- **Erref**: IUR-066/014
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:25:01. **Bukatu**: 00:26:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Ministeritzako plaza lortu zuenean, bere betebeharretako bat, behartsuei edo premiadun pertsonei artatzea zen.

12. Eskoletan azterketa medikoak egiten

- **Erref**: IUR-066/015
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:26:02. **Bukatu**: 00:27:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Eibarren praktikante plaza hartu zuenean, eskoletan haurrei egiten zitzaien azterketa medikoen arduraduna izan zen. Ikusmena eta entzumena nola neurtzen zuen.

13. Zorrien arazoa haurren artean

- **Erref**: IUR-066/016
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:27:47. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Eskoletan zorriak. Haurrak etxera bidaltzen zituzten zortzi egunez, baina eskolara bueltatzean berriz harrapatzen zituzten. Haur batzuk errazago harrapatzen zituzten.

14. Anbulatorioko lantegiko langileen arteko erlazioa

- **Erref**: IUR-066/017
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:33:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Eibarko Ansorregi pediatrak inkubagailuak zituen. Familiako medikuekin izaten zuten harreman gehiago espezializatutakoekin baino.

15. Garaiko erizainek modu mekanikoan lan egiten zuten

- **Erref**: IUR-066/018
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:33:25. **Bukatu**: 00:34:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Gaur egun erizainek formakuntza osoagoa dute. Garaiko erizainek modu mekanikoago batean lan egiten zuten.

16. Medikuari berorika

- **Erref**: IUR-066/021
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:38:02. **Bukatu**: 00:40:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:
Mediku batzuek haiei berorika zuzentzeko eskatzen zuten, nahiz eta gero haiek erizainei zuka hitz egin. "Don" tratamendua ematen zitzaien.

17. Drogak 80-90. hamarkadan I

- **Erref**: IUR-066/022
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:40:18. **Bukatu**: 00:42:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Eibarren drogekin arazo larria egon zen. Etxe batera joaten zenean, hasieratik jakiten zuen familia horretan norbaitek arazo hori bazuen. Amek eramaten zuten karga guztia. Emakume batzuek elkarte bat sortu zuten drogen arazoei aurre egiteko. Ama askok arazoak izaten zituzten haien seme drogazaleekin.

18. Drogak 80-90. hamarkadan II

- **Erref**: IUR-066/023
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:42:58. **Bukatu**: 00:43:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Anbulatorioko tresneria guztiarekin kontu handia izan behar zuten. Drogan sartuta zeudenak askotan oldarkorrak eta bortitzak izaten ziren tratuan. Gazte asko hil ziren. GIB birusa.

19. Drogak 80-90. hamarkadan III: GIB birusa

- **Erref**: IUR-066/024
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:43:42. **Bukatu**: 00:45:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Gazte asko hil ziren baina batzuk tratamenduarekin aurrera egin dute.

20. Drogak 80-90. hamarkadan IV: emakumeen ardura etxean

- **Erref**: IUR-066/025
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:48:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Alabaren institutuko ikasturteko asko hil egin ziren. Emakume asko euren semeen drogazaletasunari nola aurre egin galdetzen zuten. Gizonezkoak ez ziren inplikatzen. Emakume ezberdinek hartutako erabakiak.

21. Drogak 80-90. hamarkadan V: lapurretak dirua lortzeko

- **Erref**: IUR-066/026
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:48:20. **Bukatu**: 00:49:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:
Gazteak hasieran etxean lortzen zuten diruarekin erosten zuten heroina. Gerora, abstinentziak jota, lapurreta txikiak egiten zituzten, baina ez ziren oldarkorrak izaten. Eibarren arazoa oso handia izan zen.

22. Drogak 80-90. hamarkadan VI: nork sartu zuen heroina

- **Erref**: IUR-066/027
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:49:41. **Bukatu**: 00:52:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Heroina, Euskal Herrian gobernuak sartu zuen, euskal gazteria apaltzeko eta herri-mugimenduetatik urruntzeko. Herrian, emakumeen artean ere komentatzen zen eta ez zuten justiziarengan konfiantza handiegirik izaten.

23. Pagei kaleko amaetxea

- **Erref**: IUR-066/029
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:52:51. **Bukatu**: 00:56:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Pagei kaleko amaetxea baino lehen, bazegoen beste bat Dos de Mayo kalean. Pagei kaleko amaetxea pribatua zen, baina Osakidetzarekin lotura zuen. Sagrario emagina. Klinikak eskaintzen zuena: ginekologoak, emaginak, erizainak...

24. Etxean edo ospitalean erditu?

- **Erref**: IUR-066/030
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:56:23. **Bukatu**: 00:58:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Gaur egun, erosoagoa da ospitalean erditzea, arazorik balego bertan daudelako material guztiak. Hala ere, emakume batzuentzat lasaiagoa da etxean erditzea.

25. Emagin eta ginekologoaren arteko ezberdintasuna

- **Erref**: IUR-066/031
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:58:33. **Bukatu**: 01:00:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Emagin eta ginekologoaren arteko ezberdintasunak. Emaginak ezin du esku hartu haurra buelta emanda badator. Garai batean, ginekologoak haurra ondo nola jartzen zuen kontatzen du.

26. Ama ezkongabeak estigmatizatuak zeuden

- **Erref**: IUR-066/033
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:03:17. **Bukatu**: 01:04:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak

Laburpena:
Ama ezkongabeak oso estigmatizatuak zeuden. Batzuek herritik kanpo erditzen zuten. Gaur egungo egoera hoberantz aldatu da.

27. Eibarko Planning-a, emakumeentzat aurrerapen handia

- **Erref**: IUR-066/034

- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 01:04:46. **Bukatu**: 01:07:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Eibarko Planning-a aurrerapen handia izan zen emakume eibartarrentzat. Osakidetzak ematen ez zuen zerbitzu bat ematen zuen eta kontran zegoen jendea ere agertu zen. Sexualitateaz hitz egiten zen eta oso beharrezkoa zen garai hartan.

28. Amaren edo aitaren antza?

- **Erref**: IUR-066/035
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 01:07:13. **Bukatu**: 01:10:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Sasoikako langile batez haurdun geratu zen emakume baten erditzeaz eta hauen haurraz, kontakizun polita egiten du.

29. Emagin bezala izandako kasu larrienak

- **Erref**: IUR-066/036
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 01:10:10. **Bukatu**: 01:13:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Emagin bezala izan duen erditze zailena. Ama odolusteko arriskua.

30. Pertsona baten heriotza begietan ikusten zaio

- **Erref**: IUR-066/037
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 01:13:05. **Bukatu**: 01:15:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Ermuan lanean zegoenean, pertsona bat ahotik odola botatzen hasi eta hil egin zen. Norbait hiltzeko zorian dagoenean, begietan zerbait ikusten dio.

31. Abortua eragin nahian

- **Erref**: IUR-066/038
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 01:15:53. **Bukatu**: 01:17:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Lau seme-alaben ama batek, abortu bat eskatu zion baina Matildek ezin izan zion lagundu, ez zekielako nola egin. Haurra ondo jaio zen eta amak orduan konfesatu zion, abortua eragiteko gauzak egin zituela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com